

KIMIKORIK BARATZEAN EZ! ESKERRIK ASKO!



Rostichep (Pixabay)

Bareen aurkako produktu ez- ekologikoak erabiltzen jarraitzen duzu? Kobrea erabiltzen duzu tomateen gaixotasunak kontrolatzeko dosiak neurtu gabe? Ongarri kimikoak erabiltzen dituzu lurra ongarrizatzeko orduan?... Mila arrazoi daude gure baratzeetan pestizidak eta produktu kimikoak EZ ERABILTZEKO. Hona hemen horietako batzuk.

BARATZE PARKEKO ARAUDIARI ETA ERANTZUKIZUN PERTSONALARI LOTUTAKO ARRAZOTIAK

- Lantzen ditugun lurren jabeak ez gara. Lursail bat esleitzen digutenean, Baratze Parkeko Araudia uneoro errespetatzeko konpromisoa sinatzen dugu, baratzezaintza ekologikoa praktikatzea barne. Ekologikoa ez den baratzezaintza egin nahi badugu, pestizidak eta produktu kimikoak erabiliz, lursail bat bilatu beharko genuke beste nonbait, Sareko Baratze Parketatik kanpo.
- Gogora dezagun debekatuta dauden produktuak lursailean erabiltzea, zehapen bat jasotzeko arrazoia izan daitekeela edota esleipena ezeztatzeko arrazoia ere, Baratze Parke bakoitzaren araudian jasotzen denaren arabera.
- Lursailak jasotzen ditugu denbora mugatu baterako. Horregatik gu, baratzezaleak garenok, lurra zaintzeko eta babesteko erantzukizuna dugu eta ondorioz, egoki erabili beharko genituzke lurrak, etorkizunean beste batzuk ere lur biziez eta osasuntsuez baliatzen jarraitu daitezten. Honela, herritarrentzako balorezko errekurtsio bat izaten jarraituko dute Baratze Parkeek.

BIODIBERTSITATEARI ETA INGURUMENARI LOTUTAKO ARRAZOIAK

- Pestizidarik gabeko baratzezaintza ekologikoa egiteak biodibertsitatea mantentzen laguntzen du. Horren ondorioz, baratzezaintzarako organismo kaltegarrien eta haien harrapari naturalen arteko oreka mantentzen da, izurriteak sortzeko arriskua murriztuz.
- Pestizida batzuk erabiltzea arriskutsua izan daiteke ugaztunentzat, hegaztientzat, arraintentzat, intsektuentzat eta abarrentzat. Zenbait pestiziden erabileraren ondorio larriak sakon aztertu dira eta oso ezagunak dira, adibidez, erleen populazioa murriztearen ondorioa (gogoratu dezagun ezinbestekoak direla landareak polinizatzeko).
- Nekazaritza ez-ekologikoa hainbeste intsektizida erabili ditu, hegazti intsektujale askok ez dutela janaririk aurkitzen ia beren ohiko elikatzeko-tokietan eta bertatik desagertu dira. Kate trofikoaren haustura baten adibide bat besterik ez da hauxe, beste milaka adibide ere badaude.
- Intsektizidak etengabe erabiltzearen ondorioz, intsektu-izurri indartsuenek bakarrik irauten dute bizirik, eta, azkenean, erresistente bihurtzen dira. Horren ondorioz, industria kimikoak izurri horiek kontrolatzeko formulazio berriak bilatu behar ditu etengabe. Erresistentzien agerpenaren fenomenoaren zenbait belarrekin ere gertatzen da.
- Ongarri kimikoak erabiltzeak ura kutsa dezake. Euri-urak nitratoak edo lurrean libre dauden beste elementu kimiko batzuk arrastatzen dituenean gertatzen da; elementu kimikoz betetako ur hori lakuetara, ibaietara eta abarretara irits daiteke, urak kutsatuz eta toki horietan bizi diren faunari arazoak sortaraziz.

PERTSONEN OSASUNARI LOTUTAKO ARRAZOIAK

- Pertsona batek pestizidekin tratamendua egiten duenean, edo ongarri kimikoekin lurra ongarriztatzen duenean, pestizidaren partikulak ukitu, arnastu edo irentsi ditzake, eta ondorio kaltegarriak izan ditzake bere osasunean. Are gehiago, behar bezala babesten ez bada. Eta are gehiago, tratamenduak errepikatzen baditu, toxinak gorputzean metatuz doazelako eta epe luzera osasun-arazoak sor ditzakeelako.
- Pestizidekin eta antzekeekin tratatutako barazkiek pestiziden hondarrak eduki ditzakete, eta jandakoan, gorputzean metatu daitezke ere.

BARATZETAKO LURREN EZAUGARRIEI LOTUTAKO ARRAZOIAK

- Lurren egitura hobea da materia organikoarekin ongarriztatzen diren lurretan, ongarri kimikoekin ongarriztatzen direnetan baino: porositate handiagoa izaten dute, ura errazago mantentzen dute, aireztapen hobea, iragazkortasun handiagoa izaten dute, etab. Guzti honek landareak egoki haztea laguntzen du.
- Ongarri kimikoak erabiltzeak lurreko humus-proportzioa pobretzen du, buztin-humus konplexua ahulduz. Ondorioz, ongarri kimiko hutsekin ongarriztatzeak ezin du ziurtatu landareek epe ertain-luzean elikagai-erreserba egokirik izango dutenik.

- Lurreko mikroorganismoen populazioa, zizareena edo lurrean bizi diren beste animalia batzuen populazioa murriztu egiten da ongarririk eta beste produktu kimiko batzuk erabiltzearen ondorioz. Gogoratu behar da lurreko mikroorganismoek materia organikoa minerala bihurtzen dutela, landareentzat elikagaiak eskura jarritz. Adibide bat: produktu organikoekin ongarriztatzen diren lurrek 10 aldiz bakterio onuragarri gehiago eduki ditzakete, ongarririk kimikoekin ongarriztatzen diren lurrekin alderatuz gero.

Guzti honengatik eta beste mila arrazoi gehiagorengatik: Kimikorik baratzean ez! Eskerrik asko!

¿PRODUCTOS QUIMICOS EN LA HUERTA? ¡NO GRACIAS!



Rostichep (Pixabay)

¿Sigues usando productos anti limacos no ecológicos? ¿Usas cobre sin medir las dosis para controlar las enfermedades de los tomates? ¿Utilizas fertilizantes químicos para abonar?... Hay mil razones para NO USAR pesticidas y productos químicos en nuestras huertas. Aquí van algunas de ellas.

RAZONES LIGADAS A LA NORMATIVA DEL BARATZE PARKEA Y A LA RESPONSABILIDAD PERSONAL

- No somos propietarios de las tierras que trabajamos. Cuando se nos adjudica una parcela firmamos el compromiso de respetar en todo momento la normativa del Parque de Huertas, que nos obliga a realizar una horticultura ecológica. Si queremos hacer una horticultura no-ecológica, con uso de pesticidas y productos químicos, deberíamos buscar una parcela en otra parte, fuera de los parques de Huertas de la Red BPS.
- Recordemos que el uso de productos no autorizados en la parcela puede ser motivo de sanción o de revocación de la adjudicación, según se recoge en la normativa de cada Baratze Parkea.
- La adjudicación de una parcela es temporal. Por eso, y como horticultores aficionados que somos, tenemos la responsabilidad de custodiar y proteger los suelos manejándolos adecuadamente, para garantizar que en el futuro otros/as también puedan disponer de suelos vivos y sanos. De este modo, los Baratze Parkea podrán continuar siendo un recurso de valor para todos/as.

RAZONES LIGADAS A LA BIODIVERSIDAD Y AL MEDIO AMBIENTE

- La práctica de una horticultura ecológica libre de pesticidas ayuda a mantener la biodiversidad. Como consecuencia se mantiene el equilibrio entre los organismos dañinos para la horticultura y sus depredadores naturales, reduciendo el riesgo de plagas.
- El uso de ciertos pesticidas es potencialmente peligroso para mamíferos, aves, peces, insectos, etc. Una consecuencia muy estudiada del uso de ciertos pesticidas es, por ejemplo, la disminución de la población de abejas, que son imprescindibles en la polinización de las plantas.
- La agricultura no-ecológica ha utilizado tantos insecticidas que muchas aves insectívoras como las golondrinas ya no encuentran comida en sus lugares habituales de alimentación, desapareciendo del entorno. Este es solo un ejemplo de la infinidad de roturas de la cadena trófica.
- El uso continuado de insecticidas provoca que solo sobrevivan los insectos-plaga más fuertes, que acaban convirtiéndose en resistentes. Como consecuencia de ello, la industria química está obligada a buscar continuamente nuevas formulaciones para controlar dichas plagas. El fenómeno de la aparición de resistencias también se da con ciertas hierbas.
- El uso de fertilizantes químicos puede provocar la contaminación del agua. Se produce cuando el agua de lluvia arrastra los nitratos u otros elementos químicos que están de forma libre en el suelo; esta agua cargada de elementos químicos puede llegar a lagos, ríos, etc. contaminando sus aguas y provocando problemas en la fauna que habitan en esos lugares.

RAZONES LIGADAS A LA SALUD DE LAS PERSONAS

- Cuando una persona realiza tratamientos con pesticidas, o abona con fertilizantes químicos, puede tocar, inhalar o ingerir parte de esas partículas, pudiendo tener efectos negativos en su salud. Más aún, si no se protege adecuadamente. Y más aún, si esto lo realiza de forma periódica, ya que las toxinas se van acumulando en el cuerpo, pudiendo llegar a producir problemas de salud a largo plazo.
- La hortalizas y verduras tratadas con pesticidas y similares pueden contener restos que también se van acumulando en el cuerpo, cuando se comen.

RAZONES LIGADAS A LAS PROPIEDADES DE LOS SUELOS DE CULTIVO

- La textura de los suelos es mejor en aquellos que se abonan con materia orgánica que en los que se abonan con fertilizantes químicos (mayor porosidad, mejor retención de agua, mejor aireación, mayor permeabilidad, etc.), lo que favorece el desarrollo de los cultivos.
- El uso de fertilizantes químicos empobrece la proporción de humus del suelo, debilitándose pues el complejo-arcillo-húmico. Como consecuencia, la reserva de alimento para las plantas a medio y largo plazo se ve comprometida.

- La población de los microorganismos del suelo, tan importantes para que la materia orgánica se convierta en minerales para el alimento de las plantas, o la de otros animales que habitan en la tierra como lombrices, etc. disminuye como consecuencia del uso de fertilizantes y otros productos químicos. Un ejemplo: un suelo que se abona exclusivamente con productos orgánicos puede llegar a albergar un número 10 veces mayor de bacterias útiles, que un suelo que se abona con fertilizantes químicos.

Por todo esto y por mil razones más: ¿Productos químicos en la huerta? ¡No, gracias!